# Oiartzun

Oiartzungo turismo-liburuxka



Egileak:

Talde berdea(NINOUA)

LH 5A

Ikastolenelkartea

# Oiartzun gozatu




## Aurkezpena

Kaixo, lagunok Buff naiz.

Jakin-min handikoa naiz, betidanik izan dut gauza berriak ezagutzeko jakin-min handia.

Egun zoragarria pasa nahi al duzu?

Â¡Ven y disfruta de una esperiencia inolvidable!

Come and enjoy our town!

## Presentación

Adibidez pertsonak ezagutzea gustatzen zait, hizkuntza berriak ikastea gustuko dut.

Etorri nahi al duzu gure herrira? Guk gonbidatzen zaituztegu!

# Oiartzun begirada batean

## Kokapena



Gure herria Gipuzkoako ipar-ekialdean dago. Herri mugakideak Lezo,Irun eta Errenteria ditugu.

## Erliebe-elementuak

Oiartzun mendizÂ inguratuta dago, adibidez: Aiako Harria, Bianditz...Oiartzun ibaia, amildegiak, lautadak etab.

## Bestelako informazioa

Pertsona ospetsuenak Xabier Lete, Pello Añorga, Alaitz eta Maider... dira.

Gure ohitura aipagarrienak Ihoteak dira, zuek Halloween deitzen diozutenari guk Gau Beltza esaten diogu, baina guk beste era batera ospatzen dugu.

# ZER IKUSI
# (Interesgune naturalak)

## Bianditz



Bianditz Arritxulegiren atzean dago. Mendi honen fauna hauexek dira: Sugeak, basurdeak, orkatzak, basauntzak, xomorruak, azeriak, txoriak eta abar.

Mendi honen altuera 844 metrokoaÂ da.

Bianditz da lehen mendia elurrez estaltzen dena Oiartzungo mendi guztien artean.

# ZER IKUSI
# (Interesgune naturalak)

## TXARA-BASOA



Txara Elizalden dago. Hilerria baino gorago joaten bazara aparkaleku bat aurkituko duzu, belardi baten ondoan, hortik aurrera joaten bazara Txara aurkituko duzu.

Gure basoan animali eta landare asko daude, adibidez: untxiak, kattagorriak... Landareak ere badaude lilipak, huntza...

Baso honek 54.000 metro ditu, horietatik 35.000 basoari dagokio eta 19.000 m eraikinak egin diren eremuak dira.

# ZER IKUSI
# (Interesgune artistikoak)

## SEBASTIAN MENDIBURU




Sebastian Mendibururen eskultura Elizalde auzoanÂ dago.
Eskultura hau 1910. urtean egin zen.

Sebastian Mendiburu, Oiartzunen 1708 ko irailaren 2an jaio zen, eta 1782ko uztailaren 14ean hil zen, BolinianÂ (Italia). IruñanÂ egin zituen filosofia eta teologia ikasketak, eta idazlea izan zen.

# ZER IKUSI
# (Interesgune artistikoak)

## SUTAR



Sutar eskultura 2008.urtean eginÂ zuen Antton Mendizabalek.

Mendizabalek egindako eskultura mairubaratzaren sinboloa da,oso altua, burdin kolorekoa etaÂ ez dauka forma zehatzik. Angelu jakin batzuetatik begiratuta, gauza desberdinak ematen dute.

# Zirkuituaren mapa




## Legenda

Norabidea

Erreferentzia-puntua

Abiapuntua

Interesguneak

Helmuga

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren lehen urratsa

1

Abiapuntutik (kanpoko igerilekua) lehen interesgunera (Txara-basoa)

### Deskribapena

**Kanpoko igerilekuko sarrerako atetik abiatuÂ beharko duzu. Malda igo eta aparkaleku batera iritsiko zara. Aurrera jarraitu aparkalekua bukatu arte eta eskubira biratu. Aurrera jarraitu basoÂ batekin topo egin arte. Hori Mendibileko txara da.**

Â

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren bigarren urratsa

1 → 2

Lehenengo interesgunetik (Txara) bigarren interesgunera (Sutar) joateko...

### Deskribapena

Txaran zaudenean itzuli hilerrira eta ondoan Sutar izeneko eskultura gorri-marroixka bat ikusiko duzu.

## Zure zirkuituaren hirugarren urratsa

2 → 3

Bigarren interesgunetik (Sutar) hirugarren interesgunera (Bianditz) joateko...

### Deskribapena

**Ondoren beruntz joan, jarraitu zuzen Haurtzaro ikastolara iritsi arte.Iristean Makutso bidetik abiatu behar duzu BianditzeraÂ joateko.**

# Zirkuitaren deskribapena

## Zure zirkuitaren laugarren urratsa




Hirugarren interesgunetik (Bianditz) laugarren interesgunera (Sebastian Mendiburu) joateko...

### Deskribapena

**Bianditzetik bueltatzen zarenean, Haurtzarora itzuli eta zuzenean plazara joan. Makubi tabernan zaudenean biratu ezkerretara eta gune artistiko bat ikusiko duzu, aurrera jarraitu eta pertsona baten eskultura ikusiko duzu. HoriÂ da Sebastian Mendiburu.**

## Zure zirkuitaren bostgarren urratsa




Laugarren interesgunetik (Sebastian Mendiburu) helmugara joateko (helmuga eta abiapuntua berbera da)...

### Deskribapena

**Yon Oñatibia etorbidean bazaude jeitsi Rafael Pikabea Iribidera. Jarraitu aurrera Ogi Berri Txara kafetegira. Aurrera jarraituaz ezkerraldera biratzen baduzu Sibeluts kalean sartuko zara.Â Aurrera jarraitu eta eskuinera biratu kanpoko igerilekura iristeko.Han atseden on batÂ hartu.**

Â

# Bisitarientzako gomendioak

Jaso ezazu sortuÂ duzun zaborra.

Ekar ezazu aterkia, eguraldia oso aldakorra delako.

Lleva ropa cómoda para vivir tus mejores aventuras en Oiartzun.

Si tienes un animal, acuérdate de recoger sus excrementos.

If you see some flowers,do not pick them, please.

Do not make a lot of noise.